



Pour les prisonniers

La photo que
EUSKAL PRESO GUZTIAK E

LA CHRONIQUE MENSUELLE DE

TXILLARDEGI

Gero dionak bego dio

AXULAR-zaleek behala erreparatu duteke: e s a l d i h o r i e z d a n i r e a , Urdazubiko erretor famatuarena baizik. Hots, berriro ere egun hauetan, Euskal Herriaren Burujabetzaren kontrakoetsaiek «gero» esaten dutenean, «bego» adierazten dutela garbi dago. Barka! Ikusi nahi duenarentzat dago garbi. Gure aberkide batzuek, hau ere badugu, ez baitute ikusi nahi. Ipar Irlanda eta Quebec auto-determinaziorantz doaz. Prensaren ikuste hutsa aski da horretaz jabetzeko. Ipar-eiretarrei eta «Belle Province» koei, hitz batez, «txanda» tokatu bide zaie. Guri, noiz? Orain dela bizpahiru urte Langlois-ekin mintzatzeko aukera izan nuenean, etsita zegoen gure adiskidea: «vous, Basques, avez manqué une

opportunité historique. Vous auriez du lancer une offensive pour l'auto-détermination dans la foulée des pays baltés, caucasiens, musulmans d'Asie Centrale, etc. et avant l'Ia Bosnie». Cela aurait été très difficile de dire «non». Baina hemen PNVak «gero» dio; eta prozesua blokatuta dago. Bost urte joan dira, bai, herri honek auto-determinazioaren alde egindako bultzada esperantzagarriaz geroztik. Eta jadanik ahantzia dago hura; eta EA «voie de garage» batean sartuta. PNV «abertzaleak» ez baitu horrelako erokeriarik nahi. Oso «eroso» bizi baita Espainian eta espainolen artean. Orain dela bost urte, Bilbok ezagutu duen manifestaziorik handienetako bat bildu zuen. 1989ko abenduaren 16a zen, eta auto-determinazioaren aldeko jende-bilketa gaitza lortu zen. Hura ikusita, auto-determinazioaren aldeko «plataforma» bat eratzea proposatu zuen Eak. PNVaren erantzuna ez zen luzatu: ez... Gero Iruñeko manifestazio erraldoia egin zen otsailaren 11an, beti ere auto-determinazioaren alde. Handik lau

egunetara Gasteizko Parlamentuko bilera historikoa. PNVak ez zuen onartu bide garbi bat: «Estatutua, Konstituzioa», eta abar, nahasten zituen bi puntu eraskin inposatu zuen, HB abstentziora bultzatuz. Gero «se trata de una declaración en el plano de las ideas» hura etorri zen; gero beste hura «estamos decididos a separar la auto determinación de la política real del PNV»... Eta hor ditugu Buesa, Recalde, eta gainerako anti-euskaldun guztiak, PNVaren besotik, euskal autonomiez jabeturik: bai Vascongadetan, bai Nafarroan. Eta auto-determinazioaz ez da ezer ere esaten. Agur t'rdi! Ulster-en, berriz, alderantzizko fenomenoia ikusten dugu. IRA-ren kanpaina bortitz eta luze baten ondoren, eta ondorioz, bai Londres-ko gobernuak, bai Dublin-goak, auto-determinazio prozesua bideratu beharrez jabeturik, negoziazio politikoa zabaldu dute; Sinn Féin-i eta Gerry Adams-i dagokien betekizuna aitortzen zaielarik. Oso joera antzekoa Quebec-en. Lehenengo saialdiak (1980) porrot egin ondoren, eta René Levesque quebecar buruzagia 1987an hiltzean, dena galduta zegoela pentsa zitekeenean, horra hor Quebec «probintzia», auto-determinaziorako bidean ausarki hartua. «Nous voulons être un peuple normal», esan du Parizeau quebecar abertzaleak. Alegia, quebecarrek ez daukate zertan «faborez» eta Canada-ren menpean bizi behar. Quebec-tarrek beren buruaz jabetu nahi dute. Ingelestutako quebecarren kontra, Europa Erdialdetik eta Asiatik azkeneko urte hauetan bertan finkatutako «néo-canadiens» anti-quebecarren ginetik; eta, jakina, Canada «zatitu-ezina»-ren ginetik. Artea gu, zer? Ez da profeta harrigarria izan beharrik: Euskal Herria irtenbiderik gabe jarri duten politikari hauek, eta Arzalluzen kamarilla batez ere, segurtatua dute beren izendapen historikoa: abertzaletasuna eta herri honen esperantza «tragaperra» eta karkamordo baten desiren zerbitzutan, saldu zuten traidore-mordoa. Izendapen egokia, zinez.

Txillardegia

politiques basques Madrid et Paris ne veulent pas voir

C'EST celle de la manifestation du 1^{er} octobre à Bilbao, qui a rassemblé, en silence, des dizaines de milliers de Basques à l'appel des Gestoras pro amnistia. A l'ordre du jour, le regroupement des preso en Euskal Herria et le respect des droits de l'homme, constamment bafoués dans ce pays. Point d'orgue d'un grand mouvement de soutien à l'égard des prisonniers basques en grève de la faim, 781 personnes ont jeûné dans 113 localités du Pays Basque —dont 12 à Bayonne. A noter que 300 élus d'HB se sont réunis le 30 septembre aux portes de la prison alavaise de Nanclares de la Oca.